

LABURPEN EXEKUTIBOA

CUADERNOS ORKESTRA

13/2021

ISSN 2340-7638

ESPAINIAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA, BACH IZENEKO KONTABILITATEKO DATU-BASEAREN AZTERKETAREN

Mikel Navarro Arancegui

2021

Laburpen Exekutiboa. Cuadernos Orkestra, zk. 13/2021

Laburpen Exekutiboa

Lurralde ongizatea eta lehiakortasuna ez dira posible, lurralde horretako enpresak emankorrak ez badira eta, orobat, inbertitzaileek baliabideak haietara bidera ditzaten errentagarritasun aski lortzerik ez badute. Enpresen lehiakortasunaren maila eta bilakaera aztertzeak bi gauza ahalbidetzen ditu: alde batetik, balioaren sorrera eta banaketa eta horiei loturiko lehiakortasun arazoak ulertzea; eta, bestetik, jarduera ekonomikoan kanpoko shockek (adib. pandemiak eta Covidak sortarazitako ekonomia-atzeraldia) eta joerek (trantsizio eta gizarte erronka handiei loturikoak: demografia, ingurumen eta teknologia alorrekoak, bereziki) izango duten eragina aurreikustea.

Horretarako, jakin-iturri aberats eta oparoenetako bat enpresen kontabilitateko kontuak dira. Espainiako, Alemaniako eta EB12ko enpresen balantzeak, irabazi eta galeren kontuak eta zenbait adierazle ekonomiko-finantzario eskuratzeko, eta, datu horiek alderatuz, azterketa konparatu bat egin ahal izateko, BACH (Bank for the Accounts of Companies Harmonized) izeneko datu-basera jo dugu azterlan honetan, hiru urte aukeratuz (2008, 2013 eta 2019). Batezbesteko haztatuen balioak lantzeaz gainera, medianen balioak ere aztertu dira (horrela, muturreko kasuen eta enpresa handien eragina gutxitzeko) eta, enpresa guztien datuak ez-ezik, ETEen eta enpresa-handien datuak, berezita, analizatu dira.

Egindako azterketaren arabera, (ROA) aktiboaren errentagarritasunak Espainian bilakaera ziklikoagoa eta gorabeheratsuagoa izan du, eta 2019an Espainiako enpresek iritsitako ROAren maila (%3,8) handiagoa izan da EB12 eta Alemaniakoek iritsitakoa baino (%3,7 eta %2,9 hurrenez hurren). Espainiako ROA handi hori enpresek lortutako marjina komertzial handiagoari zor izan zaio (%5,0 vs %4,1 eta %3,1), aktiboaren errotazioan Espainiak izandako desabantaila soberaz konpentsatu duena (0,77 vs 0,93 eta 0,96).

Emaitza-kontuaren analisiak erakusten duenez, Espainiako enpresen 2019ko marjina komertzial handiago horren atzean zera aurkitu dugu: (BEG) balio erantsi gordinaren parte handiago batez jabetzeko erakutsitako gaitasuna (hots, lan-kostu aldetik lehiakorrak izatea) eta libilgetuaren amortizazio-tasa txikiagoak. Horrez gainera, egindako azterketaren arabera, Espainiako enpresek jarduera gutxiago kanpora ateratzen dute, haien bitarteko kontsumo/BEG ratio apalagoak islatzen duenez.

ROAn EB12ri eta Alemaniari 2019an Espainiak ateratako aldea are agerikoagoa da errentagarritasunen alderaketa (ROE) baliabide propioen errentagarritasunarekin egiten bada: %9,9 Espainian, %8,8 EB12n eta %7,0 Alemanian. Hiru faktorek jokatu dute Espainiako abantaila horren alde eta batek kontra. Hiru aldeko faktore horiek hauxek dira: espainiar enpresen finantza emaitzak positiboak eta handiagoak (finantza-zorraren kostu txikiagoari esker, nagusiki), ezohiko emaitzak positiboak eta handiagoak eta zerga-zama apalagoa. Aitzitik, Espainiako enpresen Ondare garbiaren pisu erlatibo handiagoak, haien kaudimena eta Covidari aurre egiteko gaitasuna handitu baditu ere, haien finantza-palankaren efektu positiboaren eragina moteldu du.

Azterlan honek eragiketen ROA (hots, eragiteko aktiboen errentagarritasuna) eta finantza-ROA (finantza-aktiboen ROA) bereiztu ditu. Finantza aktiboen pisu erlatibo nabarmena (bereziki enpresa handietan) ekonomiak orokorrean bizi duen finantzarizatze prozesuaren isla besterik ez da. EB12n eta Alemanian finantza-aktiboen ehuneko biziki igo zen 2008 eta 2019 bitartean; Espainian, aldiz, ehuneko hori 2008an jadanik nahiko handia zenez, denbora tarte horretan gutxi hazi zen. Horren ondorioz, 2019an Espainiaren maila (%29) EB12koaren (%26) eta Alemaniakoaren (%34) artean kokatu zen. Finantza-ROA ohiko ROAren gainetik egon da bai hiru lurraldeetan eta bai aukeratutako hiru urteetan. Era berean, finantza-ROA eragiketen ROAren gainetik egon da hiru lurralde eta urteetan (2019an Espainiaren kasua salbu).

ROA Espainian 2019n 2,2 puntu portzentual (pp.) handiagoa izan zen finantza-zorraren kostua baino; EB12n ere 1,3 pp. handiagoa; baina Alemanian, 0,1 pp. txikiagoa. Hau da, Espainian eta EB12n finantza-palanka efektu positiboa zegoen; eta Alemanian, aldiz, apur bat negatiboa.

Zorra alderatzen bada ondare garbiarekin, BEGarekin edo enpresen emaitzekin ondorio oso ezberdinak ateratzen dira. Bai 2019an eta bai 2008an eta 2013an ondare garbiarekiko zorra txikiagoa izan zen Espainian, EB12n eta Alemanian baino. Baina

zorpetzearen beste bi adierazleen arabera, 2008an eta 2013an Espainiaren zorpetzea handiagoa izan zen EB12rena eta Alemaniarena baino; eta 2019an bakarrik gelditu zen Espainiako zorpetzea beste bi lurraldeetako azpitik. Aztertutako denboraldian hiru lurraldeetan zorpetzea gutxitu bada ere, Espainian gutxitze hori nabarmenagoa izan da. Hori zor zaio nola ondare garbiaren handitze eta zorraren gutxitze biziagoei, hala errentagarritasunaren eta BEGaren mailen suspertze bizkorragoari. Zorpetzearen gutxitze horri esker Espainiako enpresak baldintza hobegotan aurkitu dira 2020an, Covid delata, ekonomian sortutako shockari aurre egiteko, eta baita atzeratzerik ez duten trantsizio energetiko-klimatikoak, teknologiko-digitalak eta demografikoek eskatzen dituzten berealdiko inbertsioei ere.

Enpresen finantza-zorreetan bono eta obligazioei eta beste zor finantzarioei dagokien parte txikiagoa da Espainian, EB12n eta Alemanian baino; eta, aldiz, kreditu-erakundeei dagokiena handiagoa da. Horrela gertatzen da, kreditu-erakundeekiko zorraren murriztea Espainian aztertutako denboraldian askoz nabarmenagoa izanagatik ere. Politika publikoek ahalbidetu eta erraztu beharko lukete ETE espainiarrek finantzazioa jasotzea finantza-merkatuetatik edota bankakoak ez diren erakundeetatik. Lehen aipatutako trantsizio handiek eskatzen dituzten inbertsioen ezaugarriei erantzun ahal izateko ere, bankuetatik ez datozen finantza-bideen garapena behar-beharrezkoa da.

Azterlan honek egiaztatu du, halaber, Espainiako enpresa-dualismoaren existentzia, Alemaniako ekonomian dagoena ez bezalakoa. Unitateko lan-kostuetan eta errentagarritasunean Espainiako enpresa handiak Europako Batasunakoen parean edo haien gainetik daude; baina ETEen alorrean alderantzizko argazkia aurkitzen dugu. Hala ere, 2013-2019 urteetan ETE espainiarren suspertzea oso nabarmena izan da eta Espainiako ekonomiaren enpresa-dualismoa murriztu da.

Politika publikoei dagokienez, lan honek hainbat proposamen iradoki ditu: kluster eta enpresen arteko lankidetzak sustatu behar dira (enpresen espezializazio eta produkzio-jardueren kanpora ateratzearen), produktu-merkatuetan lehia biziagotu eta enpresen hazkunderako oztupoak ezabatu (produktibitatearen handitzeak hedatu arazteko, oraindik dagoen enpresa dualismoa gutxitzeko eta BEGaren banaketan eragiteko).



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es